

HAUTESKUNDE OROKORRAK. 2019/11/10

HAUTESKUNDE-MAHAIKIDEEN ZOZKETAREN EMAITZAK KONTSULTATZEKO BIDEAK

BARAÑAIN



Jada begiratzen ahal dira Barañaingo 26 hauteskunde-mahaien osaera zehazteko Osoko Bilkura berezian egindako zozketaren emaitzak. Hautesleek beren egoera ezagutzen ahal dute, nork berea, jarraian zehazten diren bideak erabiliz:

- **INTERNET.** <https://sedeelectronica.baranain.es/eu/consulta-censo-electoral/>
- **TELEFONOZ.** NAN zenbakia eta lehenengo abizena erabili beharko dira. Nork bere informazioa soilik eskatu dezake.
 - **Barañaingo Udaleko Herritarrari Arreta Zerbitzua. 012.** (948 012 012 Nafarroatik kanpo edo telefono-operadore baten tarifa lauaren barruan deitzen bada). 012 telefonoan, astelehenetik ostiralera 8:30etik a 19:00ak arte.
 - **Barañaingo Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoa (HHB). 948 28 13 28** telefonoan, astelehenetik ostiralera 8:30etik a 14:00ak arte.
- **AURREZ AURRE.** Barañaingo Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoa (HHB). Astelehenetik ostiralera 8:30etik a 14:00ak arte. NANA eraman beharko da. Nork bere informazioa soilik eskatu dezake.

Erroldako zerrendak ez dira jendaurrean ikusgai jarriko; hortaz, bide hauetako batera jo behar da. Informazioa begiratu nahi duenak NAN-zenbakia eta lehen abizena erabili beharko ditu. Bertan, honako informazio hau edukiko du eskuragarri: bere identifikazio-datuak, botoa ematera zein hauteslektura joan behar duen, hautesbarrutia, hauteskunde-atala eta mahaia.

Zozketan izendatutako pertsonen jakinarazpen ofiziala egingo zaie; eta kide, buru edo ordezkotako alegaziorako epea jakinarazpenaren biharamunetik hasita, zazpi egunetan irekita egongo da.